# KANALAK

**KOMUNIKATZEKO**:

Hasieran ikastoletan ere saltzea pentsatu genuen, baina ez dugu oso bideragarria ikusten, izan ere, ez dakigu oso ziur ikastoletan hortaz arduratuko diren. Ardura horren ordez, ikasle orori eskuorri bana banatuko zaio, non produktu honen informazio zein ezaugarriak azaltzen diren, beraien etxeetan entregatu dezaten. Horrela, irakasleak ez dute pultseraren publizitaterik egin beharrik, dena baitago eskuorrian. Hala, haur txikiak dauden eremuetara iritsiko gara, horien gurasoei segurtasun bat bermatuko dien produktu bat eskainiz.

Horrez gain, iragarki bat egingo dugu bideo formatuan. Bertan gure produktuaren funtzionamendua islatuko da, publiko guztietara helaraziz. Hala, gure produktua ezagutzera eramango genuke, ospea lortuz.

**TRIPTIKOA**:






**IRAGARKIA:**

https://drive.google.com/file/d/1aFkWIHw3w9sql6s_QZbjjXk4xUBACp1w/view?usp=drivesdk

**SALTZEKO:**

Bezeroengana iristeko modu egokiena komertzioen bidez egitea da, alegia, online denda bidez zein komertzio fisikoen bidez. Beraz, kanal zuzenak erabiliko ditugu produktua saltzeko; horretarako, farmaziez baliatuko gara, dendan fisikoki erosi ahal izateko. Horrez gain, internet bidez ere eskuratu ahal izango dute, gure web orrian sartuz, nahi dutenean erosteko aukera izan dezaten.